



## **DURANGOKO EPAITEGIAK JAURLARITZAK DIRUA XAHUTZEAZ GAIN EZ DITU KONPONTZEN KLIMATIZAZIO ARAZOAK**

Hasieratik, 1996tik geroztik hain zuzen, klimatizazio arazo handiak ditu Durangoko eraikin judizialak. Urteko sasoirik muturrekoenetan biotako bat, kiskali ala izoztu egiten dira. Oso une gogorak pasatakoak dira, hotzak eragindako gaitz larriren bat ere jasan behar izan du haietako baten batek. Osasunerako kaltegarriak diren baldintzok gehien bat epaitegietako langileei erasaten diete lanaldi osoan eraikuntzan geratu beharrean daude-eta. Ez dira bakarrak, baina, neurri apalagoan bada ere, epaitegietara joan ohi diren abokatuek eta prokuradoreek ere sufritzen dituzte. Eta herritarrek bertaratu behar izaten dutenetan.

2013 urte hasieran hedabideetara ([elcorreo.com](http://elcorreo.com) - 2013-03-17) heldu zen Durangoko epaitegietan egiten duen hotza. Bazirudien Justizia Saila lotsagorritu zuela gertaera hark eta orduantxe hasi zen esaten klimatizazio ekipo berria instalatuko zuela. Agindutakoak gora behera, orduan bezalaxe segitzen dugu: aste honetako astelehenean, esaterako, goizeko 10:30ean 10 eta 15 graduen arteko tenperaturak zeuden. Ia jende guztiak berokia jantzita lan egin behar izan zuen lanaldi zati handi batean.

2013an, esan ziguten, klimatizazio sistema berria oso gastu handia izanik, bi ekitalditan banaturik egin behar zela. Horren arabera, 2015ean aurreikusten zen obrak hastea.

2014 bukaeran, hotz handiak hasiz bat piztu zen alarma: obrak ez zeuden esleiturik lizitazioetaz arduratzen den sailean bi lanpostu hutsik geratu omen zirelako. Harrigarria bada ere, horixe izan zen eman ziguten azalpena, Justizia Saileko Bizkaiko arduradunarekin izan genuen bilera informalean, arduradun zuzenek ez baitute aurpegia ematen.

Horiek horrela, aurten ezinezkoa izango da klimatizazio sistema berritzea. Abenduan egin zuen hotzari aurre egiteko berogailu batzuk jarri zituzten zenbait bulegotan. Dirudienez, eta baikorrak izanez gero, datorren urte erdialdera arte horrela jasan beharko dute. Baina askotan “konponketa” hori ez da nahikoa edo adabakiak huts egiten du egun hotzenetan: gainkarga

elektrikoak sistema hondoratzen du eta ez berogailurik, ez ordenagailurik, ez telefonorik geratzen dira.

Bada, horixe gertatu zen pasa den ostiralean, zeuden 4etatik 3 konpresore erre ziren, tentsio sarean aldaketaren batek eraginda, antza. Horiek berritzea 20.000 euroko baino gutxiagoko gastua izanik, ebazpena azkarra atera behar dute (agian datorren astean).

Balite konponketa horrekin nahikoa ez izatea eta galdara ere aldatatu behar izatea. Gastua 60.000 bat eurokoa izanez, prozedura ez litzateke prest udaldia baino lehen (klimatizazio sistema berria ebatzi behar duenarekin batera).

Hortaz, erdi soluzio horiek heldu bitartean, langileak hotzak hilko ez baditu administrazioak ondoko neurri hauek ezarriko ditu:

- 20 programagailu erosi eta horrela berogailu guztiek izango dute (azken 15 berogailuak programagailu eta guzti erosi zituzten);
- Berogailuak piztuta egoteko ordu gehiagoz;
- Mantenimenduko langilearen ordutegia luzatzea (goizeko 6retan hastekoa da hemendik aurrera);
- Igandeetan 6/8 orduz piztuta eduki borogailuak, astelehenetan tenperatura goxoagoa lotze aldera.

Idazki honetan ikusten dugunez, arazoari garaiz ez heltzeagatik Eusko Jaurlaritzak xahutu behar ditu gutxienez 20.000 euro, ez badira 80.000. Gehi kontsumo elektriko gehiago, gehi mantenimenduko langilearen aparteko orduak, gehi berogailuak gero beharrezkoak izango ez direnak, gehi... Behin betiko soluzioa bestea delako, urtez urte atzeratzen ibili direna. Hitz bitan, gastu gehigarri hori, sistema berria ezarri artean, ingurune-baldintzak egokiak izango direla ziurtatu gabe.

Jakin ahal izan dugunez, Durangoko Epaile Dekanoak alarma jo zuen eta goiko instantziak behartu zituen ekitera, sailburuordea barne. Sindikatuon erreklamazioek eta eskaerek ez dute ezertarako balio izan urteetan zehar. Baina epaileek salaketa aipatu orduko hasi dira mugitzen.

Nolanahi ere, Eusko Jaurlaritzak egin duen kudeaketa txarra baino txarragoak erantzukizunak garbitzea eskatzen du. Onartezina da: 2013an 2015erako programatu zen obra, data helduta esleitu gabe dago. Eta horren ondorioz, **krisi garaiotan!**, zaramara botako dute diru publiko partida bat, zerbitzu kaxkar baten truke.

2015-02-11